

Nafarroako Esaera Zaharrak. Arbizu.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Arbizu.

- 6 *Araille zarrak gauz ona.*
Aragille edo arakin zarrak aragi ona.
- 11 *Aur jaio ta aur il.*
Ezaguerara iñoiz etorri ez zanaz eta zartzean burua aultzen zaionaz esana.
- 16 *Bere etxe pobria, erregena baño obia.*
- 19 *Besteren miñek begien lo.*
Besteren miñak guri miñik ez ematen?
- 20 *Bierrak (bearrak) ondutako matsa duk ori.*
Gaitzak ikusi ta ondu edo zentzatu danaz esana.
- 22 *Bizi danarendako etorriko da denbora.*
- 23 *Bizi zeran arte zartagia eskutik iduki.*
Azken-naia, testamentua il arteraño gorderik iduki, nagusizkoa eskutik ez utzi.
- 31 *Eri (gaixo) Luzia kanpokoak aztu ta etxeakoak aspertu.*
- 35 *Ezer eztagon etxian, asarrea seguro.*
- 37 *Ezta ori axuian ama.*
Axuia, axuria, bildotsa. Norbaitek diona ez dala berak asmatua, edo dion gauza ez dala dionagatik.
- 67 *Mendian elurra elurra, artzaïen zapela makurra.*
- 75 *Olloa irabazi, ta kapona galdu.*
Erosketa edo trukada txarra egitean.
- 76 *Ollo zarrak salda ona, araille zarrak gauza ona.*
Araile, arakiña.
- 78 *Orrek eztik atxia-matxiak baño fundamentu geiago.*
Oso kaskariña duk.
- 82 *San Juan eguna, urtian den egunik luzeena.*
Edo luzeenetakoa bai beintzat, garagarrillaren 24'an baita jai ori.

- 87 *Txantxangorriak baño buru geiago eztik orrek.*
Buru ariña, kaskariña.
- 88 *Txatar begi gorri, bein ere ez etorri.*
Iñautetan mutikoak mozorroai ori oiu egiten axekatzeko.
- 93 *Zaian zur eta iriñetan abar.*
Aspalditik eta toki askotan ezaguna den esaera.
- 98 *Ze ingo dugu? Il arte bizi.*
Gaitzez edo nekez asperturik dagoenaren esaera.